| DBH 4 Marrazketa Teknikoa 2020-2021 ikasturtea, 1. ebaluazioa. | Ehunekoak |
|---|---|
| **PROIEKTUA** | **% 80** |
| **1. Oinarrizko forma geometrikoen proiektua:** geometriaren oinarrizko trazadurak eta forma geometrikoak ulertu eta era egokian marraztea. Marrazketa Teknikoaren prozeduretan oinarrituz ikusizko proposamenak sortzea, irudiak diseinatzea eta oinarrizko forma geometrikoen proiektua planifikatzea. | **% 30** |
| **2.** Aurrez planifikatutako sormen prozesua gauzatzea, produkzio digitalak sortuz, sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatuz, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. | **% 35** |
| **3.** Norberak bere erantzukizunak onartzea, lanerako urratsak eta epeak errespetatuz, lan egiteko beharrezko baliabideak eta materialak era egokian erabiliz eta pertsonen eta iritzi desberdinen arteko aniztasunak dakarren aberastasuna aintzat hartuz, lanarekiko jarrera positiboa izanik eta ariketak egiteko gogoa adieraziz. | **% 35** |
| **ZEHARKAKO GAITASUNAK** | **% 20** |
| **Ikasten ikasteko konpetentzia:** informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea zenbait iturri erabiliz, informazio hau interpretatuz eta ebaluatuz gure ikusizko proposamenak planifikatzeko. | **% 50** |
| **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko konpetentzia:** arte hizkuntzaren oinarrizko kodeak erabiltzea, ikusizko proposamenak diseinatu eta planifikatzean informazioa kudeatuz eta produkzio digitalak sortuz modu oso eta orekatuan irudien bitartez komunikatzeko. | **% 50** |